

AREATZA'KO


MUXIKA

---

*ELEXAN ABESTUTEN DIRAN*

**OTOI-ESKARIAK**

---



ZORNOTZA'N

Jaungoiko-Zale'ren Irarkolan

1932

ATV  
8314



M-3994

ATV  
18314

R-35465

# AREATZA'KO

## MUXIKA

# OTOI-ESKARIAK



ZORNOTZA'N

Jaungoiko-Zale'ren Irarkolan

1932

-1





# AREATZA'KO

## MUXIKA

### 1. MESEA

Kirie eleison, Kirie eleison, Kirie eleison. Criste eleison, Criste eleison, Criste eleison. Kirie eleison, Kirie eleison, Kirie eleison.

### GLORIA IN EXCELSIS DEO

Et in terra pax homínibus bone voluntatis. Laudamus te. Benedícimus te. Adoramus te. Glorificamus te. Gracias ágimus tibi proter magnam glórian tuam. Dómine Deus. Rex celestis, Deus Pater omnípotens. Dómine Filiu unigénite Yesu Criste. Dómine Deus, Agnus Dei, Fílius Patris. Qui tolis peccatá mundi, misere-re nobis. Qui tolis peccata mundi, súscipe deprecaciónem nostram. Qui sedes ad dexteram Patris miserere nobis. Cuóniam tu solus sanctus. Tu solus Dóminus. Tu solus altíssimus Yesu Criste. Cum Sancto Spíritu in gloria Dei Patris. Amén.

## **CREDO IN UNUM DEUM**

Patrem omnipotentem, factorem celi et terre, visibilium ómnium et invisibilium. Et in unum Dóminum Yesum Cristum, Filiun Dei inugénitum. Et ex Patre natum ante ómnia sécula. Deum de Deo, lumen de lúmíne, Deum verum de deo vero. Génitum, non factum, consubstancialem Patri per quem ómnia facta sunt. Qui propter nos hómines, et propter nostram salutem descendit de Celis. Et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine: et homo factus est. Crucifixus eciam pro nobis sub Poncio Pilato passus et sepultus est. Et resurrexit tertia die, secundun Scripturas. Et ascendit in celum: Sedet ad dexteram Patris. Et íterum venturus est cum gloria yudicare vivos et mórtuos: cuius regni non erit finis. Et in Spiritum Sanctum Dominum, et vivificatem: qui ex Patre Filióque procedit. Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur: qui locutus est per profetas, Et unam, sanctam, Católicam et apostólicam ecclésiám. Confiteor unum baptisma in remisionem peccatorum. Et Expecto resurrectionem mortuorum. Et vitan venturi séculi. Amén.

---

Sanctus, Sanctus, Sanctus Dóminus Deus Sábaoth. Pleni sunt celi et terra glória tua. Hossanna in excelsis.

---

Benedictus qui venit in nómine Domini. Hossana in excelsis.

---

Agnus Dei, qui tolis peccata mundi, miserere nobis. Agnus Dei, qui tolis peccata mundi, miserere nobis. Agnus Dei, qui tolis peccata mundi, dona nobis pacem.

Ite missa est.

Deo gracias.

## **2 PANGE LINGUA**

Pange, lingua, gloriosi  
Corporis mistérium  
Sanguinisque preciosi,  
Quem in mundi précium  
Fructus ventris generosi  
Rex effudit Gencium.

# TANTUM ERGO

Tantum ergo Sacramentum  
Veneremur cernui;  
Et antiquum documentum  
Novo cedat ritui:  
Prestet fides supplementum  
Sensuum defectui.

Genitori, Genitoque  
Laus et yubilatio,  
Salus, honor, virtus quoque  
Sit et benedictio;  
Procedenti ab utroque  
Compar sit laudatio. Amen.

Panem de celo prestitisti eis.  
Omne delectamentum in se habentem.

## 3

*Ogi zerutik etoña  
Zu zara gure poz guztia.* } (Bir)

1. Bildotz santua, ara emen,  
Munduko gatxak kentzeaŕen  
Sagrarioan non dagoen  
Luía zeruaz bat egiten. (Biritan)

2. Misteriorik aundiena  
Jaungoikoaren oroipena  
Gozotazunik gozoena,  
Gizonentzako dagoena. (Biritan)

3. Gauza gustien egilia,  
Zeru ta luŕen Eŕegia  
Gure artian bizitia  
Ze zoriona dan guña. (Biritan)

## 4

*Or zagoz Jesus altarian,  
Gorde nai zaitut biotzian;  
Gorde, gorde biotzian.*

1. Zeruetako Jaun aundija  
Egiñik gure janarija  
O maitetasun ugarija  
Gizonarentzat geiegiija.

2. Ondasun danen ituŕiija  
Kentzeko gure egaŕiija  
iO misterio pozgaŕiija  
Zeru ta luŕen miraria.

## 5

*Jesus Zu barik bizi ezin naz ni  
Jesus eldu zakidaz maiteori.*

1. Zu barik, neure Jesus, zelan bizi?  
Iñontz bako lora lez ilgo naz ni:  
Galduko nintzake bai Zuk itxirik.

*Jesus...*

2. Zeuregandik datorkit zoriona  
Ludi guzti guztiak eztaukana  
Zerutiko bakea iA zein ona!

*Jesus...*

3. Artzain on maitegarí zara Jesus,  
Zeure Biotz baruan sartu najzu,  
Alkar bizi gaitezán ni eta Zu.

## 6

*Izan zaite beti*

*Jesus maitia*

*Gure biotzañen*

*Jaun ta Jabia.*

1. Len etzan gizona,  
Zuk egin dozu:  
Zuriak betiko,  
izan nai dogu.

*Izan...*

2. Obenez lotua,  
azkatu dozu,  
Zuriak betiko,  
izan nai dogu.

*Izan...*

3. Kurutzan odola  
Dario dozu  
Zuriak betiko  
Izan nai dogu.

*Izan...*

## 7

1. Jesus maitekoña,  
Aitarik onena,  
Gizonaren lagun,  
Gozo zintzoena:  
Emon egiguzu  
Ogirik gurena,  
Aingeruen oroipena.

3. Jesusen Biotza,  
Zeruko Eregia,  
Ardi galduaren  
Artzale maitia;  
Garbitu gagizuz  
Zure bulañian  
Odol garbi erosliaz.

2. Altarako Bildots  
Gure pozgaría,  
Biotz gaixoaren  
Osasungarí;  
Zabaldu ainbat len  
Zure ituría  
Ase daigun egaría.

4. Eguzkien argi  
Disdiratzalía,  
Egun alaiaren  
Urezko argia:  
Argitu egizu  
Geure biotzian  
Iñun ikaragaría.



## 8

Agur Jesusen Biotz gozua  
Euskel biotzen zoragaña  
Artu ta gorde, ortxe betiko  
Seme zintso ta maitalariak.

Judean zeunkan eñi autua  
Kurtzean josten zinduzanian  
Zure begiak eta Biotza  
Ezar zinduzan Euzkal-Eñian.

## 9

Abestu dayogun maitasunari  
Abestu Jaunari;  
Jauna emen dago,  
Erdi Jaun-gurtzaliak  
Gurtu daigun Jesus Erosliak;  
Aintza Zuri, o Jesus!  
*(Biritan)* { Zeru ta luñak onetsi zaizela;  
Aintza ta gora Zu Zeruko Eñege  
Maitasuna Zuri, Jaun laztana.

## 10

*Jesusen Biotz maitetsua  
Zu zara gure Jaun altsua.*

1. Sututa zagoz beti gizonen  
Naiz gaiztoenen amorian;  
¿Zergaitik, Jauna, su-gar biziak  
Dozuz itxiak Biotzian? *(Biritan)*.

2. Erdi gugana Jesus maitia  
Zure berbia betetara;  
Zu zara gure Eñege Jaube  
Bizi Zu bage ezin gara. *(Biritan)*.

## 11

*Agur, agur, agur Maria  
Agur, agur, guztiz garbia.*

1. Ondo aziteko egun sentia.  
Esan iru bider Ave Maria.

2. Ama Mariaren alabea da,  
Umil eta garbi bizitzen dana.

3. Lagun txarretatik uñ egonda  
Gordeko da ondo garbitasuna.

4. Dantza zantafari iges egiñik,  
Diabru loyari ez emon pozik.

5. Jolas egunetan gogoan euki,  
Ama daukazula zerutik adi.

6. Alkar ondo maite bizitz onetan,  
Zeruan Amagaz bizi gaitezán.

## 12

Izar eder eder  
Zoragaña  
Zeru goian  
Zeru goian  
Zara, Maria:  
Izar eder  
Zoragaña  
Zara, Maria,  
Zara, Maria.

Goizeko izaña  
Ez da ain edeña  
Nola dan Ama  
Nola dan  
Zure soñera:  
Guztia edeña  
Zara, Maria,  
Sortzetik zara  
Garbi garbia.

## 13

Zeruko Ama, izar argia  
Zugana gatoz poz-pozik.  
Geure biotzak artu egizuz  
Jagoni gagizuz zerutik. } (Bir)

Gomuta zadiz, Ama on-ona  
Iñoiz be esan ez dala  
Zuri deituta, laguntza barik  
Iñortxo itxi dozula. (Biritan)

## 14

Agur, agur Ama  
Geure Amarik onena } (Biritan)  
Gure efi danak artu  
Eta zaindu Ama.

Zure semiai  
(Biritan) { Eskeñak jadetsi eiguzuz;  
Danok zerura  
Joan gaitezán, Ama, egizu.

## 15

*iOh Maria*

*Gure Ama  
Gizonen poztasuna!  
!Gorde gaizuz,  
Ta zuzendu  
Zuregana zerura!*

(Biritan) {

1. Ama maite, Maria,  
Egiguzu lagun  
Zure bitartez Jesus } (Bir)  
Guk ikusi daigun.

Beti igaro daigun } (Bir)  
Bizitza garbia.

2. Zaindu gagixuz, Ama,  
Birgiña Maria,

3. Entzun, Ama biguna,  
Gure eregua;  
Bizitza onen ondoren } (Bir)  
Jadetsi zerua.

## 16

Agur zeruko Éregiña } (Bir)  
Gure biotzen atsegiña.

Maite zaut, Ama, egiz maite;  
Beti zuria izan naike.

Zurekin beti pozez nabil,  
Zurekin nai dot bizi ta il.

## 17

1. Agur Jesusen Ama Birjiña maitia,  
Agur itxasoko izar disdiratzaia:  
Agur zeruko eguzki atsegin betia,  
Agur pekatarien kaya ta estalpia.

2. Agur gizonen Ama, zeruko éregiña,  
Ama gozo maitia, maitasun-oxiña  
Zugandik aldetia da gauza samiña;  
Agur nere biotzeko poza ta atsegiña.

## 18

Tota pulcra es Maria; *(Biritan)*  
Et macula originalis non est in te. *(Biritan)*  
Tu gloria Jerusalem. Tu leticia Israel.  
Tu honorificencia populi nostri  
Tu advocata peccatorum.  
Oh Maria. Oh Maria.  
Virgo prudentissima; Mater clementissima.  
Ora pro nobis. Intercede pro nobis.  
Ad Dominum Jesum Christum.

## 19

1. Ave Maria celitum. Oh Maria!  
Sors unica terrigenum. Oh Maria!  
Jubilate Querubin; Exultate Serafin;  
Consonate perpetin: Salve, Salve, Salve Regina.

2. Mater misericordie. Oh Maria!  
Dulcis parens clemencie. Oh Maria!  
Jubilate Querubin... etc.

3. Ad te clamamus exsules. Oh Maria!  
Te nos rogamus suplices. Oh Maria!  
Jubilate Querubin... etc.

## 20

1. Zuri begira gagoz, Amatxo laztana,  
Begi éfukitsuok biurtu gugana!  
Zure laguntza barik galduko gintzakez } *(Bir)*  
Bearturik Zugana emen gatoz eske.

2. Gugaz éfuki zaitetz, Ama maite ori!  
Zeure laguntza deuna emonik danori!  
Amarik samuřena zarian ezkerro, } *(Bir)*  
Zeutzat izan nai dogu orain eta gero.

## 21 Agur Éregiña

Agur Éregiña;  
Ama éfukioía,  
*(Goitik)* Geure bizitza, gozotasun eta  
Itxaropena,  
Agur Ama,  
Zuri deyez gagoz.

(Goitik) Ebaren ume erbestetuok;  
Antziz eta negaéz  
Gatorkizuz.

(Goitik) Negaí efi onetan,  
Ea bada  
Gure bitarteko Andrea,

(Goitik) Zure begi efukitsu ofeik  
Gugana biurtu egizuz.

(Goitik) Eta erbeste onen ondoren  
Erakusguzu Jesus,  
Zeure sabeleko Seme  
Onetsi ori.

(Goi-goitik) O Biotz bigun!

(goi-goitik) O efukiof!

(Goitik) O Maria Birjiña gozoa!  
Gure alde otoi egizu,

(Goitik) Jaungoikoaren Ama Done ofek,  
Jesukristoren agintzariak

(Goitik) Yadetsi daikeguzan,  
Amen Jesus.

## 22

*Gora Maria  
Ta efosarioa  
Gora Santo Domingo  
Bere iraslea.*

1. Efosarioaren amařak  
Dirade mařak

Zerura igoteko  
Arima onak.

2. Lugiña gura bozuz  
Frutu ugariak  
Efosarioan Maria  
goratu egizu.

## 23

*iErdi pekataria,  
erdu eleizara!  
Jaungoikoaren berbia  
gogoz entzutera*

1. Ez egon pekatuan  
ez egon luzaro,  
damu izan ez daizun  
alpeřik an gero.

(Bifitan)

2. Pekatuan gaur bertan  
etzaten bazara,  
uřian infernuan  
itzartuko zara.

(Bifitan)

## 24

1. Pekatariok Ama  
Maria, zaituguz:  
Zeugan gure biotzak } (Bir.)  
gaur ipinten doguz.

2. Zeure izen santuak  
Lagundu bekigu,  
Zeure biotz onian } (Bir.)  
ustia guk dogu.  
Egizu Zeuk...

Egizu Zeuk, Maria,  
gugaitik erégu,  
eriotzako orduan } (Bir.)  
ez gaitezán galdu.

3. Zeure Semiak gaitu  
Zerutik bilatu:  
¿Zelan, Zuk, naiko dozu } (Bir.)  
Galdu gaitezán gu?  
Egizu Zeuk...

## 25

1. Jesus gure Jaun maite  
atsekabetua,  
damu dogu guztiok (biritan)  
Zu guk iraindua. (biritan)

2. Josirik ikustian  
kuruíz ofetan Zu  
erukiz iai! biotza (biritan)  
¿nok ufatuko ez dau? (biritan)  
baita baleuko bere  
afi biurtua.  
Damu dogu guztiok...

3. Burutik oñetara  
Gorputz eder ori  
Zauri gordin egiñik (biritan)  
Dozu guztiori. (biritan)  
iAi zorigaiztokua  
Geure pekatua!  
Damu dogu guztiok...

## 26

Pekatari gaiztoa  
Erdu Jesusegana  
Yosirik emen daukozu  
Begira zeuregana.

Erdu-erdu neure arima  
Kalbario goi mendira

Kurutze ta Jesus dira  
Deiez daukozuz begira.

iO Jaungoikozko sutzara  
Bular gozoarena  
Adituizu zer dirautzun  
Zein maitetzua yatzun.

(Biritan)

## 27

Damu dot Jauna  
Biotz guztitik  
Zu naigabetu izana:  
Ez ez geyago pekaturikan  
Neure Jaungoiko laztana.

Miñaren miñez  
Jesus maitia,  
Daukat biotza lerturik  
Ikusirikan neure biotza  
Dana pekatuz beterik.

Zure oñetan orain naukazu  
Begi-biotzak urtuten,  
Bañu-bañuko negařarekin  
Parkasiñoa ezkatzen.

## 28

Parka eiguzu, Jauna,  
Parkatu bai guri;  
Parkatu, Jesus ona,  
Pekataritari.

Lotsaturik dot aitor  
Neure pekatua;  
Zugana, Jesus, nator  
Oso damutua. *(Biritan)*

Ni naz kurutze ortan  
Josi zaitudana  
Ni iltia or bertan  
Merezi dodana. *(Biritan)*

Pozik dozu izuri  
Zure odol dana;  
Erakusteko guri  
Zure biotz ona. *(Biritan)*

## 29 AURERA

iAurera biotz fede betiak!  
iAurera euskal kristiñaua!  
iAurrera! iBai! bilduñik baga  
Kristo geugaz beti dua.

*(Biritan)*

Begira gure bandera  
Begira zein edeřa;  
Ezta ikusi iñoiz bardiñik  
Zeru goitik bera,  
Jesusen Biotz gozua  
Munduaren erdian  
Erege koroatua  
Ikusi artian.  
Geřa beti, geřa bizia  
Bere arerio gogořakin  
Su ta gar badatoz bere  
Inpernu baltzakin.

*(Biritan)*

*(Biritan)*

*(Biritan)*

Kristo izango da  
Kristo izango da  
Beti ibai!  
Euskaldunen Ereģia  
Gure biotzen jaubia,  
Beste jauberik  
Eztogu nai.  
Entzun beike, entzun beike  
Inpernuak,  
Au da Jesus beraren oyua:  
«Ni, bai; Ni, bai  
Erege izango naz  
Mundu gustikua,  
iBai!»  
iAurrera! ibai! ta aurera beti  
Euskal-kristau fedez sutua  
iAurera! ibai! bilduñik baga  
Jesus guregaz beti dua.

## 30 IÑAZIO

Gure Zaindari aundia  
Jesusen Lagundia  
zuk bildu  
eta indartu dozu;  
ez da ez etsairik  
jařiko yatzunik,

iñolaz aurean  
gaurko egunean;  
naiz betor  
Luzifer gokaiztua  
Utzirik inpernua

**Zure lagundia**  
beti da bildur-gabe  
bere Jaun da Jabe  
da Jesus aundia;  
garaitu ditu  
zure Lagundiak  
etsayak.

Ez dauka, Eleizak  
Ez Euskaleñiak,  
ez dauke bildurik

iñungo aldetik...  
Iñazio or dago,  
beti indartsuago  
dauka Lagundia  
su-gaitez betia  
guda-guda nairik,  
ikuñña zabalik;  
gau ta egun guk  
guztiok bakea dezagun  
beti gau ta egun.

## 31

*Mirariak ugari*  
*Badoguz bilatzen*  
*Andoni Deunari*  
*Joan gaitez ezkatzen.*

1. Antonioren deira  
Īlak dira biztzen,  
Itxasoak baketu,  
Lotuak azkatzen.

2. Gexoak osasuna,  
Itzuak argia,  
Erenak ibiltea  
Biar dan gustia.

3. Eregutu gugaitik  
Santu ain argia  
Guztiok izan daigun  
Betiko gloria.

## 32

Magnificat \* ánima **mea** Dóminum.

Ex exultavit **spíritus meus** \* in Deo salutari meo.

Quia respexit humilitatem ancile sue \*: ecce enim ex hoc beatan me di-  
cent omnes generaciones.

Quia fecit mihi **magna** qui potens est: \* et sanctum **no-**  
**men** eyus.

Et misericordia eyus a progénie in **progénies** \* timentibus eum.

Fecit potenciam in **braquio** suo: \* dispersit superbos  
mente **cordis** sui.

Deposuit potentes **de** sede, \* et exaltavit húmiles.

Esurientes **implevit bonis**: \* ets dívites dimisit **inanes**.

Suscepit Israel puerum suum \* recordatus misericordie sue.

Sicut locutus est ad pates nostros, \* Abraham et sémini  
eyus in sécula.

Gloria Patri et Filio, \* et Spíritui Sancto.

Sicut erat in principio, **et** nunc et semper, \* et in sécula  
seculorum. Amén.

## 33 MAYATZEKO LORAK GURE AMA NESKUTZA'RI

(Enbeita'tar Kepa (Ufretxindoña'k))

1. Guzti guztijok alkar artunik,  
Geure bijotzak loraz beterik,  
Opa dautzuguz Maria  
Zeru'ko Izar argia.

2. Mayatzeko il  
Dontsu onetan  
Dei eiten dausku  
Maria'k:  
«Egizko biotz  
Lora-txortakin  
Erdue, pekatarijak».  
Goazen, bada,  
Ama onari  
Betetara guraria,  
Itxaroteko  
Zeruan gero  
Amai bagako saria.

3. Jaungoikoak  
Gorde zaizala  
Miren sorkundez  
Garbia,  
Onoidadezko  
Lora guztijen  
Baratza miragañija:  
Zugana gatoz  
Mesede bila,  
iZeruko Andra Marija!

4. Agur, Josu'ren ta gure Ama,  
Eta Zaindari bakaña!  
Agur, Zeru'ko eguzki eder,  
Agur, goizeko izaña!  
Goi-beyetako Eregiña ta  
Gure Jabola Zeu zara.  
Zugana gatoz, mesede bila,  
Zeru'ko Andra Marija.

## BEGOÑA'KO ANDRA MARI

(Intxauzti'tar Arturo'k)

1. Begoña'ko Andra Mari  
Bizkai'ko Zaindari,  
Zure seme maitaleak,  
Zugana kantari.

2. Itxaz gizon siñesdunak  
Zugan dabe kabi,  
Artzain gaixo menditañak,  
Zugan euren begi.

3. Lugin eta langileak  
Zuri otoilari,  
Aberatzak ta txiroak  
Zaituela argi.

4. Ama maite biotzeko  
Bigun eta garbi  
Bizkai'ko seme alabak  
Artu ta zain beti.

## 34 ONA BILDOTZ EZTIA

Ona Bildotz eztia, egiazko ogia,  
Zeru'tik da jatzia, Jainko maitea.

Gure Artzain ona ta Egilea,  
Aita'rik onena, Zeru emolea!  
(Ona Bildotz...)

Ostia'n zauzela, dogu siñizten;  
Zeruan bezela or Zu aurkitzen!  
(Ona Bildotz...)

Eskeintzen dautzugu gure biotza,  
Añen sutu eizu, otza dagota!

(Ona Bildotz...)

Gurtuten zaitugu emen luñean,  
Gero gozatzeko Zeru ederean!  
(Ona Bildotz...)

Gure biotzaren Jaun da Jaubia,  
Guri emoteko Goiko Bizia!  
(Ona Bildotz...)



## 35 ZUGAZ BIZI NAI DOT

1. Zu'gaz bizi nai dot, Jesus Ona,  
Zu'k berotu daizun nire bijotza.  
Ilun nago beti, Zu'gaz izan ezik,  
Ez dot gura bezte maitetazunik.

2. Nire bijotzera eldu zaitez,  
Bijok alkafeekin bizi gaitezen.  
Bete naizu beti Zu're, Gorputzagaz,  
Atzegindu naizu Zu're Odolagaz!

3. Ai! Noz ikusiko Egun argi:  
Zeru ederean Zu, nire eguzki.  
Begira ni Zu'ri, zorioneko beti,  
Bijok beti maite Zu eta ni.

4. Agur, nire Jesus, maite zaitut,  
Bizitz egañi naz, ase nagizu,  
Zu're Gorputza'gaz, Zu're Odola'gaz  
Arin joango naz Zeru'ra egaz.

5. Agur neure Jesus, Agur, Agur,  
Ementxe naukazu Zu're lagun.  
Zeru goi-goiean ikusi nai zaitut.  
Bizitz ondorean jaso nagizu.

## 36

*Ostia'n bizi zara, gau ta egun nigaitik,  
Maiteko zaitut beti, bijotz bijotzetik (Bis)*

Gurutzeratu zaitu inpernuak  
Eta munduak ukatu.  
Sagrarioan, bakartadean,  
Or ilunpean baztertu.  
Baña guk Jesus, Zu maitatzea  
Edo iltzea nai dogu (bis)

Nor ez da ańitzen Zu aldarean  
Or ikustean eskale:  
Gizaldietan, bijotzen bila,  
Guri begira maitale:  
Ai ene Jesus! nire bijotza  
Ezin bizi da Zu gabe (bis)

## 37 GABONETAKOAK

MESIAS SAńITAN agindu zana  
Aingeru artian dator gugana.  
Gloria Zerua'n, bakea emten,  
Kantari Aingeru'ak datoz Belen'en (Bis)

BELENGO PORTALIAN negu gogońean  
Jaio da gure Jesus askatxo batean.  
Estalpe barik dago abere artean,  
Gutziz Altzua dana Zeru ta luńean.

Antxe dago, gure Jesus, antxe dago, bai.  
Aurtxo txikia azkan dago,  
Amak esautzo lo egiteko.  
Baña Aurtxoak begijakin  
Esaten dautzo: Ama, ezin!

## 38 ADESTE FIDELES (Latine'raz)

Adeste fideles, leti triumfantes,  
Venite, venite in Betleem.  
Natum videte Regem angelorum.  
Venite, adoremus; venite, adoremus;  
Venite, adoremus, dóminum.

### EUZKERAZ

Zatoze, Kristau'ak, bijotzak pozturik,  
Zatoze, guztijok Belen'era.  
Jaio dan Ume Jesus ikustera.  
Jauna gurtu dagigun (*bis*)  
Jauna gurtu dagigun auzpezturik.

Ardiak itxita datoz artzain onak,  
Zeru'tik deituak estalpera.  
Guazen gu bere eurakin batera.

Gure maitasunez askatxo batean,  
Otzik dardar zaozan Jesus Ona.  
Erdu gugana, Umetxo laztana.

## 39

1. GORA, GORA, gora otsegin,  
Alaitasun da txaloakin,  
Guztiok poztu eragin.  
Agertu da, Jaungoikoa,  
Maria'gandik sortua.

2. Gazteok danok abestu:  
Jaio baña goraldtu,  
Ago batez aintzatu.  
Agertu da...

3. Izan bedi onetzia,  
Gizonen Gaizkatzalea,  
Obenen kentzalea.  
Agertu da...

## 40 AURTIXOA SEASKAN

Aurtxo polita seaskan dago,  
Zapi zuritan txit bero. (*bis*)

Ama'k dirautzo, !ene potxolo!  
iAren egin, ba, lo, lo. (*bis*)

Txakur aundia etoñiko da,  
Zuk ez badozu egiten lo. (*bis*)

Oñegaitik ba, !ene potxolo!  
Egin aguro lo, lo. (*bis*)  
Lo. Lo. Lo...

## **41 KURUTZ BIDEA**

1. Pilato'k agindu dau lapu'eren artean  
Untzez gogor josteko Jesus Kurutzean.
2. Sorbaldian arturik kurutze astuna,  
Iltera orain doa Jesus gure Jauna.
3. Lu'era jausitenda, Jesus nekaturik,  
Jasoten laguntzeko, ez da e'rukirik.
4. Agertzen yako Ama, nega'ez bidean:  
iAi! iZe zamintazunak! Bijen bijotzetan.
5. Simon Zirineo'ta'ra, artzen dabe lagun  
Kurutzea eroaten ikasi dagigun.
6. Pekataria nun da, zure e'rukia?  
Jesus'i garbitzeko malkoz arpegia?
7. Ludiko pekatuen astunaren aundiz,  
Kurutzepean Jesus jausiten da ba'fiz.
8. Jerusalengo alabak, ez Ni'ri nega'rik  
Negar egidazue pekatuagaitk.
9. Ainbeste neke-mi'nez aul egi'nik Jauna  
Iruga'fen aldian emen jo dau lu'ra.
10. Ludiaren au'rian jantzia kendurik  
Or dago Jesus ona ozo lotzaturik.
11. Kurutzean josi dabe zanak u'ratu'rik  
Azu'fak azkatuaz euren giltzetatik.
12. Kurutzean josite mi'nez aseturik,  
Il da Jesus maitie gure onagaitik.
13. Semea'ren Gorputza jatzi dabenean,  
iAi, ze ezpata daukan Ama'k biotzean.
14. Obira dabenean Jauna'ren Gorputza  
Itxaso sami'ña da Ama'ren Biotza.

### **AMAIA**

Jesus Ona, nigaitik  
Kurutz untzetua,  
Damu dot biotzetik  
Zu naigabetua.

# 42 GURUTZ BIDIA

(*Josu'ren Neke-Uniak*)

(Enbeita'tar Kepa, Ufretxindofa'k)

## 1. Lenengo Neke-Unia

*Josu Pilatos'ek  
epaitu ebanekua*

Josu laztana oratu dabe,  
Aritu zaitez, Kistaña!  
Arbilan lotu, zuzitu dautse  
Zigorkadaz bizkaña.

Arantz-ustaya buruban daula  
Jaungoiko-Seme bakaña  
Pilatu zori gaiztoko arek  
Emon dau erijotzara.

## Bigarren Neke-Unia

*Josu'ri Kurutzia sorbaldaratu  
eutsonekua*

Ludijan diran oben orokaz  
Jantzirik dagon Kurutza,  
Bere sorbaldan aferazorik,  
Darue Josu on utza.

Jopu gaiztuak gofoto biziz  
Makil-urtika, jo, bultza...  
Au ikusirik nori etxako  
Garbaiz ausiko bijotza?

## Irugarren Neke-Unia

*Josu lenengoz jausi zanekua*

Oñen ganian egon ezinda  
Josu jausten da luñera;  
Erukañizko zauri bañiak  
Ein yakoz lenaz gañera.

Odol-ixerdiz ta autsez loitzen da  
Bere aurpegi edeña.  
Zigortzaliak juaz dirautso:  
«Jagi, ta zoaz auñera».

## Laugarren Neke-Unia

*Josu'k bere Ama aurkitu ebanekua*

Kurtze aztuna lepuan daula  
Lapur gaizkile bat legez,  
Erailtzaliak darue Josu  
Joka, bultzaka, didañez.

Golgota'rako bidian Ama  
Urtetan yako negañez,  
Baña Semiaz itzik ezin dau  
Naibagiaren indañez!

## Bosgarren Neke-Unia

*Josu'ri Simon Zirene'taña  
laguntzat emon eutsenekua*

Josu eraso dabe bultzaka,  
Il-zorijan Josu Deuna;  
Simon Zirene'taña damotse  
Golgota'rako laguna.

Eruazoten dautsola onek  
Josu'ri kurutz aztuna:  
«A Simon Simon! -dirautso Josu'k-,  
Nok leukian zure eguna!»

## Seigarren Neke-Unia

*Beronike emakumiak Josu'ri  
arpegija garbitu eutsanekua*

Begira emen Beronike'ren  
Siñismen egijazkua,  
Begira ondo Josu Kisto'ri  
Dautson maitasun sutsuba:

Zapi zurijaz garbitzen dautso  
Aurpegi Jaungoikozkua,  
Txistuz, autsez ta odol-ixerdiz  
Judar gaiztuak loituba.

## Zazpigafen Neke-Unia

*Josu bigafenez jausi  
zanekua*

Jainko-Semia Kurtze aztunak  
Bota dau bigafen aldiz...  
Jagi gura ta ezin jagi da,  
Dana da geure efu andiz!

Josu oñazen erdijan eta  
Gu atsegiñetan gabiz:  
Gaiztakeririk naikua da-ta  
Damutu gaitez an egiz.

## Bederatzigafen Neke-Unia

*Josu irugafenez jausi  
zanekua*

Zaurijen zauriz indargeturik  
Irutan kurutz-azpira  
Jausten da Josu Jainko-Semia.  
Gaxua ezin jagi da!

Tatarez artu dabe jopubak,  
Judafak pozik begira...  
Arnas-estuko ilagiñian  
Eltzen da Koskotegira.

## Amaikagafen Neke-Unia

*Josu Kurutzian untzez  
josi ebenekua*

-Ze pizti dira Jainko-Semia  
Oñelan josten dabenak?  
-Ai, oñek dira geuk Bere kaltez  
Egin doguzan obenak.

Zek dauko Josu oñen ixilik?  
-Geuganako maitasunak:  
Beren burua zelan gaizkatu  
Ikasi dagijan gixonak!

## Zortzigafen Neke-Unia

*Josu'k Jerusalem'go alabai  
itz-egin eutsenekua*

Itz samurakaz dirautse Josu'k  
Jerusalem'go alabai:  
«Nigaitik ez eiñ negañik, baña  
Zeuen burubak gaitik bai.

Obena gaitik negar eixube,  
Azketsi lagun urkoai:  
Jauna'k sarija emongo dautse  
Olan egiten dabenai».

## Amargafen Neke-Unia

*Josu'ri soñekuak azkenengoz  
kendu eutsoezenekua*

Danen auñian erazten dautse  
Jantzija jopu zikiñak,  
Soñekuagaz batera baita  
Bizkar-azal ta mamiñak!

Botaten dabe kurtze ganera,  
Untzez josi, esku, oñak;  
Txitik ein barik igaroten dauz  
Bere oñaze samiñak.

## Amabigafen Neke-Unia

*Josu kurutzian il  
zanekua*

Ezker-eskuma lapur bi dagoz,  
Erdijan Jainko-Bildotsa!  
Gaudija bete dau kurutz batek...  
Ziñopa batek kurutza.

Aitak itxi dau Seme Bakaña!  
Amak ezer ezin dautsa!  
Zazpi ezpatak zulatzen dabe  
Miren Deunaren bijotza!

## **Amairugañen Neke-Unia**

*Josu'ren gorputz iñotza bere  
Amari altsuan jañi eutsoenekua*

Nikodemus'ek eratsiten dau  
Kurtzetik Josu iñotza,  
Ta bere Ama lañituari  
Altzuan ipinten dautsa.

Buru gañetik oñazpiraño  
Zati osorik eztauka:  
Damuz bijotzak ausi daiguzan,  
Geuk olan jañi dogu-ta!

## **Amaulagañen Neke-Unia**

*Josu'ren gorputz iñotza obijañ  
sartu ebenekua*

Zeru ta luñen Jaun ta Jaubia  
Sartu dabe iñobijañ,  
Ama bakañik geratzen dala  
Zoritxar itzalenian.

Añen, ba, oni lagun dayogun  
Goiko Jauna'n ixenian,  
Dima ona lez aurkitu gaizan  
Emendik guazenian.

## **43**

### **JOSU'REN NEKIAK ARAKATZEKO GOMUTALDIJAK GOLGOTA'RAKO KURUTZE-BIDEA. JOSU'REN ERIJOTZA**

*(Arbe'tar Patxi'k)*

#### **ESKEINTZA**

Nekaustia goznartzen gatoz, gu,  
Josu, Jaungoiko laztana;  
Kurutze Bidea arakatu  
Ta irabazten parkamena.  
Gokaxo aldez eskintzen dogu  
Onen nekazke dan dana.  
Bitartekotzat izan zakigu,  
Gure Ama, Miren Deuna.

## **Lenengo Neke-Unia**

*Josu Pilatos'ek epaiñu  
ebanekua*

Bost miñ sigorkada artuta,  
Lerturik Gorputz guztia.  
Arantz-Uztaja buruan daula,  
Jaungoiko Seme Maitia.

Pilatos'gana aurkeztu eta  
Artu eriotzako epaia.  
«Oñ or Gizona» esan eta  
Epañu Epaikaria!

## **Bigañen Neke-Unia**

*Josu'ri Kurutzia sorbaldaratu  
eutzoenekua*

Amabost oin luze, Kurutzia  
Eta zortzi, bezoz, zabal;  
Artu dagien Eriotzia  
Ipiñi dautze sorbaldan.

Gure obenen garbaiz, Kurutzia,  
Eroan daigun pozez ta apal  
Eta emon geuk be bizitzia  
Josu'gaitik emen da an.

## **Irugañen Neke-Unia**

*Josu lenengoz jausi  
zanekua*

Zaurijen zauriz indargetuta,  
Josu jauzi da lenengoz.  
Kurutzte Deuna'k aspiratuta,  
Gure obenakaz zekoz.

Jazoteko erukioñik ez ta  
Sigortzaliakin zagoz.  
Maitetu daigun Kurutzia ta  
Goñotau obena gogoz.

## **Bostgañen Neke-Unia**

*Josu'ri Simõn Zirineo'taía  
laguntzat emon eutzenekua*

Ilgo ete-jakien bidien  
Bildurtu direz Judañak  
Miñez gejago nekatu dejen  
Nai dabe eldu Golgota'ra

Ta ipiñi dautzie lagunduten  
Simon Zirineo'taía.  
Geuk lagun dajogun eroaten  
Kurutzte Deuna, Kistañak!

## **Zazpigañen Neke-Unia**

*Josu bigañenez jausi  
zanekua*

Kurutz astuna eroan eziñik,  
Jausi da bigañenean;  
Jañaitu biar da jagi nairik,  
Neke-miñ gogoñenean.

Jaungoiko ta Gizona izanik,  
Ikusi gaitu oben-pean.  
Azkorentzat dala, daki, alpeñik,  
Eriotza, Nekaustean.

## **Laugañen Neke-Unia**

*Josu'k bere Ama aurkitu  
ebanekua*

Josu'ri agertu jako Ama,  
Ikusirik aiñ oñazez.  
Jauna'k ikusi dau Bere Ama  
Da bijek dagoz samiñez.

Baña ezer ezin dautzo Ama'k  
Negar bakañik lastanez  
Ama-Semie'n atzekabiak  
Negar daiguzan tamalez.

## **Seigagañen Neke-Unia**

*Beronike emakumiak Josu'ri  
arpegia garbiñu eutzenekua*

Iru-itzuliko zapi bategaz  
Beronike emakumiak  
Garbiñu dautzo, odol da autzez  
Loiñu daben arpegia.

Zapi-tolez bakotxan, zaritzat,  
Itxitzo, arpegi-irudia.  
Ez daigun loiñu lizunkeriaz,  
Kisto'n Odol-Ixuria.

## **Sortzigañen Neke-Unia**

*Josu'k Jerusalem'go alabai  
itz egin eutzenekua*

Josu'k gutzako maiñetasuna  
Argiro dauzku agertzen:  
«Jerusalengo alaba onak,  
Niri ez negar» dirautze:

«Negartu aldi guztiko obena  
Damutazun ta biotzez».  
Erijotziaz Josu laztanak  
Betiko gaitu gaizkatzen.

## **Bederatzigaren Neke-Unia**

*Josu irugarenez jausi  
zanekua*

Irugaren aldiz, gure Jauna  
Jausi da Kurutz-azpira.  
Gure obenen astuntazuna,  
Norañokoa ete-da!

Zer dirauzku txit Alzua danak  
Jauziaz iruten bera?  
Sañten emon aŕen irauna,  
Damuz, jafaitu onera.

## **Amaikagaren Neke-Unia**

*Josu Kurutzia'n untzez  
josi ebenekua*

Lau untze aundiaz josi dabe  
Josu-kisto Kurutzia'n;  
Iltzer-aldi gogoa jasan be,  
Lapur bi aren erdian.

Eta ni gogor jositen nabe  
Itxukeriak ludian!  
Zelan, Zuk, izanik eru-gabe,  
Nigaitik Eriotzia?

## **Amairugaren Neke-Unia**

*Josu'ren Gorputz ilotza bere  
Ama'ri altzoan jafi eutzoenekoa*

Jaungoiko-Semea jatzi dabe  
Bere Ama'ren altzora;  
Atzekabia geituten dabe  
Miren Deuna'n biotzera.

Erukitu obendijokaz be  
Ba, erudun autortzen gara.  
Eta maitetu gagizuz geu be,  
Ze, geure Ama Zeu zara.

## **Amargaren Neke-Unia**

*Josu'ri soñekoak azkenengoz  
kendu eutziezenekoa*

Sigorkadakaz sauriz beterik,  
Odol-ixuriz zeatuta.  
Oñaze gogoa esañirik,  
Josu qrañ erantzita.

Kurutzia'n ilteko josirik,  
Mamiñ-azur astinduta.  
Ipiñi dabe Josu biloizik,  
Gutziz dago lotzatuta.

## **Amabigaren Neke-Unia**

*Josu Kurutzia'n il  
zanekua*

Eguzkiak izpiak ostendu,  
Luñak ikara sakona.  
Itxazoak guttiz asaŕetu,  
Il dalako gure Jauna.

Saspi Azken-Itz dituz mintzatu  
Ta emon guri Ama laztana.  
Azketsi, lapur zana garbaitu,  
Dimas, lenengoko Deuna.

## **Amalaugaren Neke-Unia**

*Josu'ren Gorputz ilotza obian  
sartu ebenekua*

Sartute Aramateo'n obian  
Josu'ren Gorputz-Ilotza;  
Beŕerosirik ludi guztia,  
Artu daben Eriotzan.

Ez daigun itxi bizi guztian  
Gokaiztoa'ri garaitza:  
Josu'k emon dausku Kurutzia,  
Irabazteko Bizitza.

## **GURE AMA NESKUTZA SAMINDUARI**

Ama gelditu da atsegin barik,  
Asetuta atzekabez.  
Seme bakaŕa ilda ikusirik,  
Obendi guztijon alde.  
Otoitz gugaitik Ama On ori,  
Joan gaitzen onduez.  
Ama, zure laguntzarik barik  
Galduta gagoz gu eŕez!



**GOROZIKA'KO ANDRA MARIA'RI**  
 (Enbeita'tar Kepa, Uretxindoña'k)

Agur, Andra Maria,  
 Ama guztiz garbia;  
 Opatu nai dogu  
 Zure jayotz eguna,  
 Ama gustiz biguna.

Zerutar danak  
 Alai dagoz;  
 Geu be olantxerik  
 Pozáren gagoz  
 Zeuri agur  
 Egin nayan,  
 Gorozika'ko  
 Txadonian  
 Zeure jayotz  
 Egunian.



GOROKZIRA KO ARDIA-MARIA RI

(Inbata ka Kaps, Utotindora k)

Agua Ardia Maria  
Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria  
Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

Agua Ardia Maria

Amo gauris gauris

